

Lan-eskaintza

CEOa BMCP PROIEKTUA

Masen espektrometria detektagailu aurreratu baten proiektua (BMCP) aurrera ateratzeko CEO baten bila dabil CICNanogune. Si3N4 nanomintz bat (NM) detekzio-mekatronika batean (software propioa) sartzean datza teknologia, MPC (micro channel plate) baten barruan. Hori gai da masen espektrometria-ekipoetan makromolekulak, proteinak eta masa molekular altuko pilaketak identifikatzeko, modu zehatz eta fidagarrian.

Joan proiektura



Lanaldi osoa



Donostia



**Aurrez
aurrekoa**

Zeregin nagusiak

- Plangintzaz eta negozio-estrategiaz arduratuko da, bereziki. Giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, teknikoak eta komertzialak optimizatu beharko ditu horretarako.

Funtzio nagusiak:

- Negozioaren garapena: Plan estrategikoa eta/edo urteko kudeaketa-plana prestatzea, jarduera komertzialaren buru izatea, aukera berriak identifikatzea eta proiektuen jarraipena egitea.
- Kudeaketa finantzarioa: Finantza-jarduera gainbegiratzea, funtsak eskuratzea eta kapitala sortzea.

Profila

Eskakizunak:

- Goi mailako titulua eta esperientzia negozio-garapenean.
- Ingelesa menderatzea, ahoz eta idatziz.

Baloratuko diren alderdiak:

- Prestakuntza zientifiko-teknikoa; bereziki, zientzia kimikoak eta/edo kudeaketa, MBA edo antzekoa.
- Mekanikako ezagutza praktikoak izatea baloratuko da.
- Ekintzailtza-egitasmoetan eta kapitala sortzen esperientzia izatea.
- Merkatu-analisetan, salmentetan eta oinarri teknologikoko produktuen merkaturatzean esperientzia izatea.

**Interesatzen zaizu?
Sartu hemen, mesedez**